



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko maiatzaren 22a

57. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Burlatako Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Burlatako Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Burlatako Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Burlatako Udalari buruzko 2018ko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|---|---|
| <p>I. Sarrera (3. or.)</p> <p>II. Burlatako Udala (3. or.)</p> <p>III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (6. or.)</p> <p>IV. Iritzia (7. or.)</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1 Udalaren 2018ko Kontu Orokorrari buruzko iritzi finantzarioa (7. or.)</p> | <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legedia betetzeari buruzko iritzia (8. or.).</p> <p>V. Egoera-orri finantzario bateratuak (9. or.)</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1 2018ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orri bateratua (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. 2018ko ekitaldiko aurrekontu-emaitza bateratua (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. 2018ko abenduaren 31ko diruzaintzagerakin bateratuaren egoera-orria (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Udalaren eta erakunde autonomoen 2018ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Udalaren eta erakunde autonomoen 2018ko abenduaren 31ko emaitza-kontua (14. or.).</p> <p>VI. Konklusioak eta gomendioak (17. or.)</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Burlatako Udalaren aurrekontu orokorra (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2018-12-31n (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak betetzea. (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Kudeaketa-alor garrantzitsuak (20. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (40. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna (40. or.).</p> |
|---|---|

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta bere 2019rako jarduketa-programari jarraituz, Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, udalaren datu esanguratsuenak deskribatzen ditugu; hirugarrenean, gure fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa identifikatzen ditugu; laugarrenean, udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrari buruzko iritzi finantzarioa eta legezketasuna betetzeari buruzkoa ematen ditugu; horren laburpena bosgarren atalean jasotzen da. Seigarren atalean, honako gai hauei buruzko konklusio eta gomendio batzuk ematen ditugu: udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraukortasuneko printzipioen betetzea, aurreko txostenetako gomendioen jarraipena eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Azterketa lana 2019ko azarotik 2020ko urtarrilera bitartean egin du auditoretzako lau teknika-rik eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Burlatako Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Emandako epean, alegazioak aurkeztu ditu Burlatako Udaleko alkateak.

Eskerrak ematen dizkiegu udaleko, haren erakunde autonomoetako eta enpresa publikoetako langileei, lan hau egiteko eman duten laguntzarengatik.

II. BURLATAKO UDALA

Burlata Iruñerrian dagoen udalerrri bat da, 2018ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 18.934 biztanle zituen eta 2,15 km²-ko azalera duena.

Udal antolamendua, besteak beste, honako organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkura, zeina ordezkari politikoaren organo gorena baita, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza.


2018an, udalaren egitura administratiboa 11 alorrek osatzen dute, Alkatetza barne.

Udalak honako ente hauek dauzka zerbitzu publikoak kudeatzeko:

- Erakunde autonomoak:
 - a) Kultura eta Jaietarako Patronatua, kultura sustatu, ezagutarazi eta garatzeko.
 - b) Kirol Patronatua, kirol sustapenerako eta gorputz hezkuntzaren garapenerako.
- Merkataritza-sozietateak: udalak partaidetzaren osotasuna edo gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietate hauetan:

Enpresa	Partaidetzaren portzentajea	Helburu soziala
Udalaren Hirigintza Sozietatea SL (SUMB, SL)	100	Hirigintza
Bizkarmendia SLU	100	0-3 haur eskolako zerbitzua eman eta kudeatzea
Erripagaña Desarrollo Urbano SL	51	Etxebizitzak sustatu eta eraikitzea

Grafikoki, honako hau da egitura indarduna:



Udalaren eta haren menpeko enteen ekonomiari eta langileei buruzko datu nagusiak honako hauek dira 2018ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazioaren Sektore Publikoa:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2018-12-31n
Udala	18.978.189	14.207.806	165
Kultur Patronatua	915.106	899.539	5
Kirol Patronatua	2.164.043	2.200.635	33
-Bateratzearen doitzak	-1.381.724	-1.381.724	
Guztira	20.675.614	15.926.256	203

2018an, Udalak 1,38 milioiko ekarpena egin zien erakunde kultura eta kirol erakunde autonomoei.

- Merkataritza-sozietateak:

Enpresak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Batez besteko langilekopurua
Udalaren Hirigintza Sozietatea SL (SUMB SL)	371.356	448.766	-77.410	1
Bizkarmendia SLU	524.055	519.801	4.254	23
Erripagaña Desarrollo Urbano SL	54.004	154.715	-100.711	0

Udala Iruñerriko Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri-hondakin solidoak kudeatu eta tratatzeko zerbitzuak, hiri-garraioko zerbitzuak (autobusa eta taxia) eta ibai-parkearen kudeaketa. Gainera, 2010eko irailaz geroztik, musika-eskola kudeatzeko Hilarión Eslava Partzuergoaren kidea da, Atarrabiako Udalarekin batera.

2018ko ekitaldian, udalak 635.808 euro ordaindu ditu zerbitzu horiengatik.

Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa			Zeharkako kudeaketa		
	Udala	ERAKUNDE AUTONO- MOAK/ Partzuergoa	Enpresa publikoa	Zerbitzu- emakidarako kontratua	Zerbitzu- kontratua	Mankomunita- tea
Argiteria publikoa	x					
Hilerria	x					
Hiri-hondakinen bilketa eta tratamendua						x
Kale garbiketa	x					
Uraren ziklo integrala						x
Estolderia	x					
Parke publikoa	x				x	
Liburutegia-ludoteka	x					
Gizarte zerbitzuak	x					
Kirol instalazioak		x				
Bidaiarien hiri garraio kolektiboa						x
Hirigintza	x		x			
Udaltzaingoa	x					
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak		x				
Ikastetxe publikoen mantentzea	x					
Berdintasunaren sustapena	x					
Turismo-jardueraren sustapena	x					
0-3 urtekoen ikastetxea	x		x			

2018an Udalarari aplikatzeko zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.; Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta araudi sektorial indarduna ere.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Udalaren 2018ko ekitaldiko finantzei eta legezketasun-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin da, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrak bere alderdi nagusi guztietan behar bezain irudi doia erakusten duen, 2018ko abenduaren 31n, ondareari, finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-eragileari buruz, aplikatzeko den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

- Ea Udalak eta haren erakunde autonomoek 2018ko ekitaldian zehar egindako jarduketak eta aurrekontu- eta finantza-eragileak eta Kontu Orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

- Ea 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak bete diren.

Aurreko iritzia emateaz gainera, lanak barne hartu du 2018rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetze-maila berrikustea.

Fiskalizazioaren irismena Burlatako Udalaren 2018. urteko Kontu Orokorra da, zeina honela osatuta baitago Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitatearen Instrukzio Orokorra onesten duen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuaren arabera:

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontua, honako hauek osatua:

a) Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.

b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea, zeina egoera-balantzeak eta galera-irabazien kontuak osatzen baitute.

c) Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontuaren eranskinak.

- Entitateak partaidetza guztiak dituen merkataritza-sozietateen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2018ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legezketasuna betetzeari dagokionez, norainokoa txosten honen VI. atalean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragileei dagokie.

IV. IRITZIA

Burlatako Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek barne hartzen ditu Kontu Orokorra iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik gabe egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren taxuketa, ezarpena eta mantentzea.

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko maiatzaren 8an onetsi zuen Kontu Orokorra.

Udalak bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako Kontu Orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta Horretarako, aipatutako fiskalizazioa egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek dituzten oinarritzko fiskalizazio-printzipioei jarraituz; zehazki, "Fiskalizazio Finantzarioaren Oinarritzko Printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 delakoak ezartzen ditueni eta "Betetze-fiskalizazioaren Oinarritzko Printzipioak" izeneko ISSAI-ES 400 delakoak ezartzen ditueni jarraituz. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea kontu orokorretan akats materialik ez egoteaz; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa arau indardunen araberakoak izatea alderdi adierazgarri guztietan.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortze aldera zenbatekoei eta Kontu Orokorrean adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen araberakoak dira, horren barne dela arriskuaren balorazioa, hala iruzur edo errakuntzaren ondorioz kontu orokorrek akats materialak izatearen arriskuarena nola lege-urraketa muntadunak egotearen arriskuarena. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak kontuan hartzen du entitateak Kontu Orokorra egin ditzan muntaduna den barne kontrola, inguruabarren arabera egoki diren auditoria-prozedurak taxutze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emateko xedez.

Auditoria batek barne hartzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorraren aurkezpenaren ebaluazioa ere, osoki aintzat hartuta.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du finantzen eta betetzearen gaineko gure fiskalizazio-iritzia funtsatzeko.

IV.1 UDALAREN 2018ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZI FINANTZARIOA

IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

- Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta eguneratu gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetu bateratuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den egiaztatzea. Saldo hori, 2018ko abenduaren 31n, 52,78 milioi eurokoa zen.

IRITZIA

Gure iritzi, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean norainokoaz azaldutako mugak izan ditza-keen eraginengatik ez bada, erantsitako Kontu Orokorra irudi leiala erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari eta Udalaren 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta

data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-arloko printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV.2. LEGEDIA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

- Udalak 576.949 euro egiten dituzten gastuak ordaindu ditu, eta Kultura eta Jaietarako erakunde autonomoak 179.615 eurokoak, kontratu-euskarririk gabeko zerbitzu eta hornidurengatik; kasu batzuetan, dagokion adjudikazio-prozedura izapidetu ez delako, eta beste batzuetan, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu delako.

IRITZIA

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" paragrafoan azaldutako egitateen eraginarengatik izan ezik, eta berrikusitako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Udalaren 2018ko ekitaldiko egoera-orri finantzarioetan agerturiko jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa alderdi esanguratsu guztietan bat datoz aplikatzekoak diren arauekin.

V. EGOERA-ORRI FINANTZARIO BATERATUAK**V.1 2018ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRI BATERATUA
(Udala eta erakunde autonomoak)****Gastu-aurrekontuaren betetzea Sailkapen ekonomikoa**

Gastuak	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak	Betetzearen %
1. Langileak	8.276.588	38.599	8.315.187	8.046.698	97
2. Ondasun arruntak	4.748.220	148.081	4.896.301	4.418.878	90
3. Finantza-gastuak	1.450	0	1.450	786	54
4. Transferentzia arruntak	1.799.638	-33.600	1.766.038	1.553.439	88
6. Inbertsioak	2.659.497	3.775.762	6.435.259	1.426.229	22
7. Kapital-transferentziak	287.271	219.226	506.497	473.601	94
8. Aktibo finantzarioak	0	0	0	0	0
9. Pasibo finantzarioak	7.800	0	7.800	6.625	85
Guztira	17.780.464	4.148.068	21.928.532	15.926.256	73

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetzearen %
1. Zuzeneko zergak	4.051.150	0	4.051.150	4.102.631	101
2. Zeharkako zergak	1.244.339	0	1.244.339	1.618.899	130
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.563.300	34.454	2.597.754	3.090.290	119
4. Transferentzia arruntak	6.853.090	0	6.853.090	6.985.168	102
5. Ondarearen eta herri-lurren aprobeitxamenduaren bitartezko diru-sarrerak	436.617	0	436.617	502.159	115
6. Inbertsio errealak besterentzea	2.076.800	0	2.076.800	3.839.227	185
7. Kapital-transferentziak	555.168	0	555.168	536.880	97
8. Aktibo finantzarioak	0	4.113.614	4.113.614	360	0
Guztira	17.780.464	4.148.068	21.928.532	20.675.614	94

V.2. 2018ko EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA
(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2018	2017
Aitorturiko eskubide garbiak	20.675.614	20.309.947
Aitorturiko betebeharrak garbiak	15.926.256	14.962.162
Aurrekontu-emaiza	4.749.358	5.347.785
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-2.973.822	-5.817.063
Finantzaketaren desbideratze negatiboa		
Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturako gastuak	552.968	1.337.196
Aurrekontu-emaiza doituak	2.328.504	867.918

V.3. 2018ko ABENDUAREN 31ko DIRUZAINZTA-GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA
(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2018	2017	Aldea (%)
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.716.343	1.079.983	59
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.435.187	802.717	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.919.162	1.685.085	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	112.497	100.920	
(+) Ordainketen itzulketak	923	0	
(-) Bilketa zaileko eskubideak	1.747.834	1.508.739	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	3.592	0	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	2.248.447	1.997.142	13
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.080.514	1.237.126	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	10.645	39.038	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.162.591	733.522	
(-) Ordaintzeko dauden itzulketak	510	24.610	
(+) Aplikatzeko dauden ordainketak	5.813	37.154	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	14.353.602	10.136.204	42
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0	
Diruzaintzako gerakina, guztira	13.821.498	9.219.045	50
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0	0
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	14.978.084	12.442.250	20
Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako	-1.156.586	-3.223.205	64

V.4. UDALAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN 2018ko ABENDUAREN 31ko EGOERABALANTZEA

Udalaren balantzea

Deskribapena	2018	2017*	Deskribapena	2018	2017*
A Ibilgetua	53.355.274	56.439.712	A Funts berekiak	68.599.389	66.797.958
1 Ibilgetu materiala	42.722.424	46.116.357	1 Ondarea eta erreserbak	43.804.485	39.101.080
2 Ibilgetu ez-materiala	339.829	324.519	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	1.770.049	4.703.405
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	7.817.982	7.523.436	3 Kapitaleko dirulaguntzak	23.024.855	22.993.473
4 Herri-ondasunak	0	0	B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0	0
5 Ibilgetu finantzarioa	2.475.039	2.475.400	4 Hornidurak	0	0
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	0	C Epe luzeko hartzekodunak	0	6.625
6 Kitatu beharreko gastuak	0	0	Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantza eta gordailuak	0	6.625
C Zirkulatzaila	17.389.644	12.350.027	D Epe laburreko hartzekodunak	1.908.753	1.732.372
7 Izakinak	0	0	6 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.905.161	1.732.372
8 Zordunak	3.213.575	2.439.872	7 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	3.592	0
9 Finantza-kontuak	14.176.069	9.910.155			
10 Finantzaketaren egoera iragankorrrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak. Aplikatzeko.	0	0			
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	0			
Aktiboa, guztira	70.744.918	68.789.739	Pasiboa, guztira	70.508.142	68.536.955

* Auditatu gabeko ekitaldia

Udalaren Kultur Patronatuaren balantzea

Deskribapena	2018	2017*	Deskribapena	2018	2017*
A Ibilgetua	256.919	209.409	A Funts berekiak	395.410	347.900
1 Ibilgetu materiala	228.769	209.409	1 Ondarea eta erreserbak	205.357	205.357
2 Ibilgetu ez-materiala	28.150	0	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	0
3 Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	0	0	3 Kapitaleko dirulaguntzak	190.053	142.543
4 Herri-ondasunak	0	0	B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0	0
5 Ibilgetu finantzarioa	0	0	4 Hornidurak	0	0
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	0	C Epe luzeko hartzekodunak	0	0
6 Kitatu beharreko gastuak	0	0	5 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantza eta gordailuak	0	0
C Zirkulatzailea	272.258	224.125	D Epe laburreko hartzekodunak	133.767	85.634
7 Izakinak	0	0	6 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	133.767	85.634
8 Zordunak	125.343	19.770	7 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0	0
9 Finantza-kontuak	88.113	129.988			
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak. Aplikatzeko.	0	0			
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	58.802	74.367			
Aktiboa, guztira	529.177	433.534	Pasiboa, guztira	529.177	433.534

* Auditatu gabeko ekitaldia

Udalaren Kirol Patronatuaren balantzea

Deskribapena	2018	2017*	Deskribapena	2018	2017*
A Ibilgetua	1.643.795	1.504.573	A Funts berekiak	1.704.711	1.750.709
1 Ibilgetu materiala	1.643.795	1.504.573	1 Ondarea eta erreserbak	906.229	1.091.101
2 Ibilgetu ez-materiala	0	0	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	0
3 Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	0	0	3 Kapitaleko dirulaguntzak	798.482	659.608
4 Herri-ondasunak	0	0	B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0	0
5 Ibilgetu finantzarioa	0	0	4 Hornidurak	0	0
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	0	C Epe luzeko hartzekodunak	0	0
6 Kitatu beharreko gastuak	0	0	5 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantza eta gordailuak	0	0
C Zirkulatzaila	276.248	462.426	D Epe laburreko hartzekodunak	215.332	216.290
7 Izakinak	0	0	6 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	215.332	216.290
8 Zordunak	128.851	129.080	7 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzak	0	0
9 Finantza-kontuak	147.397	185.380			
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzak. Aplikatzeko.	0	0			
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	147.966			
Aktiboa, guztira	1.920.043	1.966.999	Pasiboa, guztira	1.920.043	1.966.999

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.5. UDALAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN 2018KO ABENDUAREN 31ko EMAITZA-KONTUA

Udala

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2018	2017*	Hartzeko	2018	2017*
Deskribapena			Deskribapena		
Langile-gastuak	6.848.319	6.800.397	70 Salmentak	1.454.212	1.066.777
62 Finantza-gastuak	786	1.163	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	375.854	230.551
63 Tributuak	7.528	15.123	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	4.559.022	3.740.108
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	2.930.713	2.843.934	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	952.955	936.686
65 Gizarte prestazioak	-	-	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	-	-
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	6.936.782	6.506.680
67 Transferentzia arruntak	2.514.353	2.258.871	77 Kapitalaren gaineko zergak	209.552	149.474
68 Kapital-transferentziak	659.985	158.137	78 Bestelako diru-sarrerak	634.851	138.070
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	339.737	315.407	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	-	-
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.821.807	375.314	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-
Guztira	5.123.228	12.768.346	Guztira	15.123.228	2.768.346

* Auditatu gabeko ekitaldia

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2018	2017*	Deskribapena	2018	2017*
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	1.821.807	375.314
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	2.236.535	2.236.535	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	-	4.332.412
84 Itxitako aurrekontuetako esku-bideen eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	-	5.080	84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	92.853	-
89 Etekin garbia guztira (Saldo hartzekoduna)	-	4.702.646	89 Etekin garbia guztira (Saldo zorduna)	321.875	-
Guztira	2.236.535	4.707.726	Guztira	2.236.535	4.707.726

* Auditatu gabeko ekitaldia

Kultura eta Jaietarako Patronatua**Ekitaldiko emaitza arruntak**

Zor	2018	2017*	Hartzeko	2018	2017*
Deskribapena			Deskribapena		
61 Langile-gastuak	188.998	186.850	70 Salmentak	155.616	109.406
62 Finantza-gastuak	-	-	71 Jabetza- eta enpresa-errenta	-	-
63 Tributuak	-	-	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	-	-
64 Kanpo zerbitzuak, hornidurak eta lanak	567.428	474.128	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	-	-
65 Gizarte prestazioak	-	-	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	-	-
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	711.980	682.582
67 Transferentzia arruntak	95.604	107.635	77 Kapitalaren gaineko zergak	-	-
68 Kapital-transferentziak	-	-	78 Bestelako diru-sarrerak	-	-
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	-	-	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	-	-
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	15.566	23.375	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	-	-
Guztira	867.596	791.988	Guztira	867.596	791.988

* Auditatu gabeko ekitaldia

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2018	2017*	Deskribapena	2018	2017*
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	15.566	23.375
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	-	-	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Eskubide eta betebeharren aldaketa Itxitako aurrekontuak (saldo zorduna)	-	203	84 Eskubide eta betebeharren aldaketa Itxitako aurrekontuak (saldo hartzekoduna)	-	-
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	15.566	23.172	89 Etekin garbia, guztira (saldo zorduna)	-	-
Guztira	15.566	23.375	Guztira	15.566	23.375

* Auditatu gabeko ekitaldia

Kirol Patronatua**Ekitaldiko emaitza arruntak**

Zor	2018	2017*	Hartzeko	2018	2017*
Deskribapena			Deskribapena		
61 Langile-gastuak	1.010.399	974.902	70 Salmentak	1.475.791	1.467.211
62 Finantza-gastuak	-	1.939	71 Jabetza- eta enpresa-errenta	145	50
63 Tributuak	-	-	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	-	-
64 Kanpoko zerbitzuak, hornidurak eta lanak	912.191	870.825	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	-	-
65 Gizarte prestazioak	-	-	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	-	-
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	-	-	76 Transferentzia arruntak	531.747	506.997
67 Transferentzia arruntak	138.823	179.328	77 Kapitalaren gaineko zergak	-	-
68 Kapital-transferentziak	-	-	78 Bestelako diru-sarrerak	17.487	8.700
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	-	-	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	-	-
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	-	-	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	36.243	44.036
Guztira	2.061.413	2.026.994	Guztira	2.061.413	2.026.994

* Auditatu gabeko ekitaldia

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2018	2017*	Deskribapena	2018	2017*
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	36.243	44.036	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	-	-
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	-	-	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	123	-
84 Eskubide eta betebeharren aldaketa Itxitako aurrekontuak (saldo zorduna)	785	-	84 Eskubide eta betebeharren aldaketa Itxitako aurrekontuak (saldo hartzekoduna)	-	6.998
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	-	-	89 Etekin garbia, guztira (saldo zorduna)	36.905	37.038
Guztira	37.028	44.036	Guztira	37.028	44.036

* Auditatu gabeko ekitaldia

VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarriren bat ere.

Orobat, fiskalizazio-txosteneko iritzian adierazitako salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren eta haren mendeko entitateen ku-deaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. BURLATAKO UDALAREN AURREKONTU OROKORRA

Udalak eta haren erakunde autonomoek 2018rako zeukaten hasierako aurrekontu bateratuak ager-tzen zituen diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurreikuspenak 17,78 milioi eurokoak ziren.

4,15 milioi euroko aurrekontu-aldaketa batzuk eginda —hasierako kredituen ehuneko 23 egiten dute—, behin betiko gastu eta diru-sarrera bateratuak 21,93 milioi eurokoak dira.

Aurrekontu-likidazioa

2018an, gastuak 15,93 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko 73ko betetze-maila izan dute. Gastu horiek 2017koak baino ehuneko 6,4 handiagoak izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2018an 20,68 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, ehuneko 94ko bete-tze-mailarekin. Kasu honetan, 2017koekiko igoera ehuneko 1,8koa izan da.

Laburbilduz, Udalak 2018an gastatutako 100 euroko bakoitza honako hauetara bideratu zen eta honela finantzatu zen:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzatze-iturria	Ehunekoa
Langileak	50	Tributu bidezko diru-sarrerak	43
Bestelako gastu arruntak	38	Transferentziak	36
Inbertsio errealak	9	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	21
Kapital-transferentziak	3		
Pasibo eta aktibo finantzarioak	0		

Gastu arruntek guztizko gastuaren ehuneko 88 esplikatzen dute; horietatik, ehuneko 50 langile-gastuak dira. Inbertsioek ehuneko bederatzia egin dute, eta gainerako ehuneko hirua kapital-transferentzietatik dagokie.

Diru-sarreretan, tributu-jatorrikoek guztizkoaren ehuneko 43 egiten dute, eta transferentziek, ehuneko 36. Gainerako ehuneko 21etik, portzentajerik handiena inbertsio errealen besterentzearena da, diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 19rekin.

Ondoren, 2017ko eta 2018ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin lotutako adierazle multzo baten alderaketa bat erakusten dugu:

	2018	2017	Aldea (%) 2018/2017
Aitortutako eskubideak, guztira	20.675.614	20.309.947	2
Aitortutako betebeharrak, guztira	15.926.256	14.962.163	6
Diru-sarrera arruntak	16.299.147	14.399.961	13
Funtzionamendu-gastuak	14.019.015	13.574.143	3
Kapitaleko diru-sarrerak	4.376.106	5.894.234	-26
Kapitaleko gastuak	1.899.830	1.330.223	43
Saldo ez-finantzarioa	4.755.622	5.386.728	-12
Aurrekontu-erabaketa	2.328.504	867.918	168

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Diru-sarrera arruntak ehuneko 13 igo dira; kapitalekoak, berriz, ehuneko 26 jaitsi dira. Dena den, termino absolutuetan, nabarmenagoa izan da diru-sarrera arrunten gorakada (1,9 milioi euro) kapitaleko diru-sarreraren beherakadaren aldean (1,5 milioi euro).
- Funtzionamendu gastuek eta kapital-gastuek ehuneko hiru eta 43 egin dute gora, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, gehikuntza 0,45 eta 0,57 milioi eurokoa izan da.
- Aurrekontu-emaizta doituak ehuneko 168ko igoera izan du 2017koaren aldean. Termino absolutuetan, 1,46 milioi eurokoa izan da gehikuntza.

VI.2. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIO BATERATUA 2018-12-31n

Ondoren, 2018ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2018	2017	Aldea (%) 2018/2017
Aurrezki gordina	2.280.132	825.819	176
Finantza-zama	7.411	47.715	-84
Aurrezki garbia	2.272.721	778.104	192
Finantza-zamaren adierazlea	% 0,05	% 0,33	-85
Aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehuneko	% 14	% 6	133
Zorpetze-maila	% 0	% 0,4	-100
Zorra, guztira	0	59.125	-100
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-1.156.586	-3.223.205	-64
Autonomia fiskalaren indizea	% 43	% 37	14
Kobrantsa zalantzagarriko zordunen indizea	% 52	% 61	-15

Aurreko taulatik, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- 2018an, diru-sarrera arruntek ehuneko 13ko gorakada izan dute, eta funtzionamendu gastuek ehuneko hirukoa; horren ondorioz, aurrezki gordinaren gehikuntza ehuneko 176koa izan da. Aldi berean, finantza-zamak ehuneko 85eko beherakada izan du, osoki amortizatu baita ordaintzeko zegoen zorra. Beraz, aurrezki garbiak 1,5 milioi euroko gorakada izan du 2017arekin alderatuta.
- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak 1,16 milioi euroko zenbateko negatiboa izan du, eta ehuneko 64ko hobekuntza izan du 2017. urtearen amaierakoarekin alderatuta; hots, 2,07 milioi euro, termino absolutuetan.

Udalak ehuneko 14ko zorpetze-ahalmena dauka; zorra deuseza, eta aurrezki garbia, 2,27 milioi eurokoa. Oro har, adierazleek hobera egin dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 1,16 milioi negatibokoa da. Egoera hori onbideratzeko, udalak ez du onetsi Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen 2/1995 Foru Legeko 230. artikuluan aurreikusitako ezein neurri.

Azken urteotan, udalak hirigintzari loturiko diru-sarrera oso muntadunak izan ditu; gehienbat, Erri-paginatik heldutakoak, zeinak izaeraz ez baitira egiturazkoak. Komeni litzateke etorkizunari begirako analisi bat egitea bizitegi-eremu berri horretatik helduriko gastu eta diru-sarrerei buruz.

VI.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNEN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, Kontabilitate Nazionalako SEC 2010 irizpideei jarraituta, honako ente hauek jotzen dira tokiko administrazio publikotzat: udala bera, erakunde autonomoak (Kultur Patronatua eta Kirol Patronatua) eta merkatukoak ez diren udal sozietateak¹ (Udalaren Hirigintza Sozietatea SL eta Bizkarmendia SLU).

Erripagaña Desarrollo Urbano SL sozietatea eta Hilarión Eslava Partzuergoa oraindik ez ditu sailkatu Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Orokorrak.

Administrazio publikotzat hartutako entitateek honako datu hauek izan dituzte:

- Aurrekontu-egonkortasuneko printzipioak:
 - a) 4,5 milioi euroko finantzaketa-ahalmena sortu dute, aurrekontu-egonkortasunari buruzko txostenaren arabera.

Finantzaketa-ahalmena

	Zenbatekoa, 2018
Diru-sarrera ez finantzarioak	20.654.972
Gastu ez-finantzarioak	15.639.648
Saldo ez-finantzarioa	5.015.274
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Itxikako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreraren ko-brantzak	-518.782
Sortutako interesak, mugaegunera iritsi gabeak	-786
Finantzaketa-ahalmena	4.495.706

- b) 2018ko ekitaldiko gastu konputagarria 2 milioi euro handiagoa da gehieneko gastu-muga baino; horrekin, gastu-araua urratu da, zeren eta gainditzen baita 2018rako baimendutako alde-tasa, ehuneko 2,4koa.

Gastu-araua

	2018ko zenbatekoa
2017ko gastu konputagarri bateratua	7.480.267
% 2,4ko igoera	179.527
2018rako aurreikusitako gastu-muga	7.659.794
2018ko gastu konputagarri bateratua	9.676.579
2018ko gastu-desbideratzea	-2.016.785

Gastu-arauaren urratze horrek behartzen du 2019-2020 ekitaldietarako plan ekonomiko finantzario bat onestera, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak xedatzen duen bezala. Udalak ez du plan hori onetsi.

- Finantza-iraunkortasunaren printzipioa
 - a) Zor publikoaren iraunkortasunari dagokionez, helburu hori bete egiten da, 2018aren amaieran ez baitago inolako zor hitzarturik.
 - b) Merkataritza-zorren iraunkortasunaren baldintza bete egiten da, zeren eta ez baita gainditzen berankortasunari buruzko araudian ezarritako gehieneko epea.

¹ Ente bat merkatuko dela ulertzen da haren produkzioa ekonomikoki esanguratsuak diren preziotan saltzen bada eta salmentek gutxienez ere produkzio-kostuen ehuneko 50 estaltzen badute.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	
Lehenengo hiruhilekoa	(-6,67).
Bigarren hiruhilekoa	21,93
Hirugarren hiruhilekoa	23,14
Laugarren hiruhilekoa	26,75

(*) *Ogasun Ministerioan argitaraturiko datuak*

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea, lehen hiruhilekoan, kuantitatiboki ezberdina da gainerako hiruhilekoetako epeekin alderatuta. Horrek ez du esan nahi adierazleak okerrera egin duenik, baizik eta 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritako eta 2018ko apiriletik aurrera aplikatu beharreko kalkulu-metodologia berriaren ondorioa da.

VI.4. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

VI. atal honetako apartatu ezberdinetan errepikatzen den bezala, honako gomendio hauek oraindik ere ezarkizun diraute:

- *Kontu Orokorreko espedienteen Erripagaña Desarrollo Urbano SL sozietatearen kontua jasotzea. Sozietate horretan, udalak gehieneko parte-hartzea dauka.*
- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotu eta onestea.*
- *Prozedurak taxutu eta aplikatzea, udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatuta egotea ahalbidetuko dutenak.*
- *Udal-ondasunak, bai jabari publikoak, bai ondarezkoak bai eta herri-ondasunak ere, eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea.*
- *Erakunde autonomoen estatutuak osatu eta gaurkotzea, halako moldez non horien autonomia-maila eta horien gaineko udal-kontrola islatuko baitira.*
- *Urteko aurrekontua onestea indarreko araudiak ezarritako epeen barrenean.*
- *Kontratua amaitua duten kontratazioak lizitatzea.*

VI.5. KUDEAKETA-ALOR GARRANTZITSUAK

VI.5.1. ALDERDI OROKORRAK

Entitatearen 2018ko ekitaldiko aurrekontu orokorrari 2018ko martxoaren 29an eman zitzaion behin betiko onespena, eta 68. Nafarroako Aldizkari Ofizialean (2018ko apirilaren 10ekoa) argitaratu zen.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2018ko aurrekontuen likidazioa Alkatzaren 2019ko apirilaren 2ko ebazpen batez onetsi zen.

Kontu Orokorrari buruz egindako berrikuspenetik, honako hau adierazi nahi dugu:

- Kontu Orokorraren espedienteak ez ditu Erripagaña Desarrollo Urbano SL sozietatearen kontuak barne hartzen, ez eta Hilarión Eslava Partzuergoarenak ere.
- Erripagaña Desarrollo Urbano SL merkataritza-sozietateak, zeinean SUMB SLk kapitalaren ehuneko 51ko partaidetza baitauka, ez dauka jarduerarik 2018an, baina ez da likidatu harik eta abian dauden bi prozedura judizial ebazten ez diren arte. Bi prozedura horietatik eratorritako balizko erantzukizunak 300.000 euroan zenbatetsi dira, eta horietarako zuzkidura osoki dago egina.
- SUMB SLren 2018. urteko kontuak kanpoko profesionalak auditatuak daude. Finantza-auditoretzako txosten horrek aldeko iritzia dauka.
- 2017aren bukaera aldera, "Bizkarmendia SLU" merkataritza-sozietatea eratu zen, osoki udalaren partaidetza duena, eta 2018ko urtarrilean ekin zion bere jarduerari.

Hurrengo alderdiak azpimarratuko ditugu:

- a) Osoko Bilkurak 2017ko uztailaren 27an onetsi zuen 0-3 urteko haur eskolako zerbitzuaren kudeaketa aldatzea, zeharkakoa izatetik zuzeneko izatera, udalaren merkataritza-sozietate bat eratuz. Horretarako, "Bizkarmendia SLU" izeneko sozietatea eratzea eta haren estatutuak onetsi zituen. Sozietatearen helburua da udalaren haur eskolako zerbitzua ematea eta kudeatzea lehen zikloan, eta haur nahiz gazteentzako kultur eta aisialdi jarduerak sustatu, antolatu eta kudeatzea.
 - b) Espedientean jasota dago iraunkortasuna eta efizientzia frogatzen dituen justifikazio-oroitidazkia, baina langileria-kostua ez da esplizituki zenbatetsi merkataritza-sozietate baten bitzrteko zuzeneko kudeaketaren kasurako.
 - c) Kontu-hartzailatza orokorrak ez du kasuko barne kontrola egiten sozietateko langileria-gastuen gain, zeinek sozietatearen gastuaren ia osotasuna egiten baitute.
- Ez da ageri ekitaldian eragozpen-oharrik egin denik, eta dirusarreretako anomaliari buruzko ohar bakarria egin da.
 - Ez da erakunde autonomoen gaineko kontu-hartzailatza eginkizunik egin, eta zenbait akats antzeman ditugu bi patronatuetako nominen kontrolean eta kultura eta jaietarako erakunde autonomoko gastuen kontratazioan eta onespren-prozeduran.
 - Gardentasunari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeko publizitate aktiboko betebeharrak bete-teari dagokionez, oro har udalak bete egiten ditu betebeharrak horiek.

Gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontu orokorra eta aurrekontu-likidazioa onestea legediak ezartzen dituen epeen barrenean.*
- *Kontu Orokorrean sartzea gehiengoarekin partaidetuta dagoen Erripagaña Desarrollo Urbano SL-ren kontuak eta Hilarión Eslava Partzuergoarenak.*
- *Barne-kontrolako prozedurak ezartzea bi erakunde autonomoetan eta Bizkarmendia SLU sozietatean.*

VI.5.2. INBENTARIOA

2016aren bukaera aldera, udal-inbentarioa berrikusteko eta gaurkotzeko prozedura bati ekin zion udalak, kanpo-enpresa bat kontratatuz eta Nafarroako Gobernuak horretarako dirulaguntza emanda. Inbentario horretan modu berezian ageri da udalaren lurzoru-ondarea, baina Osoko Bilkurak azkenean ez du onetsi, zenbait akats antzeman baitira, batez ere ondasun-sailkapenean eta ondasun horiei emandako balioetan.

Gaur den egunean, eta udalak inbentario-onbideratzean aurrerapausoak eman dituen arren, prozesua oraindik burutzeko eta onesteko dago, bai eta kasuko kontabilitate-doikuntzak egiteko ere.

Udalak badauka udalaren lurzoru-ondarearen erregistro bat, baina haren erabatekotasuna ez dago bermatuta.

Gure gomendioak:

- *Udal-inbentarioa berrikusi eta gaurkotzeko prozesua buka dadila, halako moldez non udalaren titulartasuneko ondasun guztiak jasoko dituen.*
- *Ibilgetuaren balioa gaurkotzea egoera-balantzean.*
- *Lurzoruaren udal-ondarearen erregistroa gaurkotzea eta osatzea.*

VI.5.3. UDALEKO LANGILERIA-GASTUAK

Langileria-gastuak 6,85 milioi eurokoak izan ziren 2018an. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 48 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 97 izan zen.

2017ko ekitaldiarekin alderatuta, langileria-gastuek ehuneko bat egin zuten gora, xehakaturik jarraian azaltzen denez:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2018	Aitortutako betebeharrak, 2017	Aldaketa (%)
Hautetsien lansariak	142.839	166.046	-14
Behin-behineko langileen ordainsariak	48.711	54.163	-10
Funtzionarioen oinarritzko lansariak	1.386.220	1.406.422	-1
Funtzionarioen lansari osagarriak	455.081	412.746	10
Langile lan-kontratudun finkoen ordainsariak	534.240	516.033	4
Aldi baterako langile lan-kontratudunen ordainsariak	2.006.470	1.996.220	1
Kuota sozialak	2.175.745	2.119.955	3
Langile-gastu sozialak	81.272	98.310	-17
Familiaren osagarria	16.732	20.151	-17
Guztira	6.847.310	6.790.046	1

Langile-gastu sozialek eta familiaren osagarriak ehuneko 17 egin dute behera, eta hautetsien ordainsariak ere behera egin dute ehuneko 14. Funtzionarioen ordainsari osagarriek ehuneko hamar egin dute gora.

Aldi baterako langile lan-kontratudunen lansarien kontzeptuan sarturik daude administrazio-kontratudunen ordainsari guztiak. Egoera hori jada 2019an zuzendu zen.

2018ko abenduaren 31n, udalak honako lanpostu hauek zituen:

Sailkapena	2018
Behin-behineko langileak	1
Langile funtzionarioak	116
Lan-arabidea	25
Guztira	142

Honako hau zen lanpostuen egoera:

	2018
Plantillako langileak	142
Lanpostu beteak	71
Lanpostu hutsak	71
Lanpostu hutsen portzentajea lanpostuen osotasunarekiko	50
Betetako lanpostu hutsak	55
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)	77
Bete gabeko lanpostu hutsak	16
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	23

2018an, lanpostu guztien ehuneko 50 hutsik daude; horietatik, ehuneko 77 aldi baterako beteta daude eta gainerakoek, ehuneko 23k, bete gabe jarraitzen dute.

Honako hau da plantillaren banaketa, udal alorren arabera:

Udalaren alorra	Lanpostu kopurua	Guztizkoaren gaineko porzentajea
Zerbitzu Orokorrak	10	7
Zerbitzu Ekonomikoak	8	6
Hezkuntza eta Gazteria	5	4
Giza Baliabideak	3	2
Udaltzaingoa	34	24
Obrak eta zerbitzuak	52	36
Gizarte Zerbitzuak	23	16
Hirigintza	4	3
Euskara	1	1
Berdintasuna	1	1
Aniztasuna eta migrazioak	1	1
Guztira	142	100

Egin den berrikuspenetik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2018ko plantilla organikoaren behin betiko onespina 2018ko ekainean argitaratu zen NAOn, alegazio-izapidea amaitu ondoren.
- 2018ko plantilla organikoan aldaketa bat egitea onetsi zen, eta haren behin betiko onespina 2018ko urriko NAO batean argitaratu zen.
- 2018ko abenduan Burlatako Udaleko 13 lanpostutarako lan-eskaintza publikoa (aurrerantzean, LEP) argitaratu zen. Iragarki horretan espresuki adierazten zen ezen postu horiek eskaintzen zirela ² Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeko araudiak 2018rako baimenduriko egonkortze-tasaren babesean.

Egiaztatu dugunez, lanpostuetako hiruk ez zituzten betetzen enplegu-egonkortzerako eskainiak izateko moduko antzinatasun-betekizunak. Halere, 2017ko abenduaren 31n beteta zeuden lanpostu hutsei buruzko txosten bat badago, zeinaren arabera 47 lanpostu baitaude guztira, enplegu-egonkortzerako ezarritako betekizunak betetzen dituztenak.

- Ez da zilegi berrezarpen-tasagatiko eskaintzarik, 2017an zehar ez baitzen ezein baja efektiborik izan.
- 2019ko urtarrilaren 8an, honako hau argitaratu zen NAOn: “Burlatako Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario eta administrazio-kontratudunentzako enplegu-baldintzei buruzko 2018-2020 urteetarako akordioa”. Funtzionario publikoen enplegu-baldintzei buruzko akordioen arloan aplikatzekoa da Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 84. artikuluan xedatutakoa. Akordio horiek soilik egin daitezke kasuan kasuko Administrazio Publikoaren eskumeneko arloei buruz, eta ezin diete aipatutako araudiari aurka egin.

Aipatutako akordioa aztertuta, ikusi da ordainsari-osagarriak eta eragin ekonomiko beste hitzarmen batzuk jasotzen dituela, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan jasotakoa gainditzen dutenak. Udalak ezin du lege-araubide hori aldatu, ez eta aplikatzekoa den araudian jasotakotik aldentzen den araubide bat itundu ere.

Zehazki, aztertutako datuetatik, honako zertzelada hauek identifikatu ditugu:

a) Akordioaren 10. artikulua ezartzen du, haren eranskinarekin batera, Udaltzaingoiari dagozkion zerbitzuen kudeaketarako “ordu erabilgarrien poltsa” bat sortuko dela. 2018ko ekitaldian ez dago lege-araurik osagarri horren kobrantza gaitzen duenik; horrenbestez, ez da bidezkoa hura jasotzea. Urteko zenbatekoa 37.567 eurokoa izan da. Egia bada ere 2019. urterako Aurrekontuei buruzko Foru Legeak³

² 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19. artikulua.

³ 2019. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 27/2018 Foru Legearen azken xedapenetatik zazpigarrena.

hura kobratzeko gaikuntza ematen duela Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legean 57.C.h apartatua sartzearen bidez, arau horrek 2019ko urtarrilaren 1ean hartu zuen indarra.

b) Akordioaren 16. artikulua familia-laguntza arautzen du, eta laguntza hori, emantzipatu gabeko seme edo alaba bakoitzeko, 23 urteraino hedatzen du, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuko 50. artikulua ezartzen duen adin txikikotasunaren muga gainditurik. Halaber, familia ugariagatiko ordainsari bat jasotzen du, Estatutu horrek aurreikusten ez duena.

Akordioaren 6. artikulua xedatzen du ezen lanpostu hutsak, haiei buruzko deialdi publikoa egin aurretik, eskaini egin behar zaizkiela kasuko lanpostuarena baino maila baxuagokoak izanik udaleko eta erakunde autonomoetakoak diren langile finko guztiei. Artikulu horrek ez du betetzen Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko erregelamendua onesten duen 113/1985 Foru Dekretuan xedatzen dena.

d) Akordioaren 13. artikuluan jasota ageri dira lizentzia ordaindugabe eta baimen batzuk, gauditut egiten dutenak otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuak ezartzen duena, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua.

Berrikusi egin ditugu 2018ko azaroko nominakoak diren langile guztien oinarrizko soldata eta osagarriak (salbu eta egun batez edo gehiagoz bajaran egon diren pertsonenak). Oro har, plantilla organikoak xedatzen duenaren arabera dira.

Honako hauek izan dira berrikusitako ordainsariak eta haien zenbatekoak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	114.453
Lanpostu-osagarria:	17.006
Dedikazio eskusiboko osagarria	1.031
Bateraezintasuneko osagarria	6.488
Lanaldiaren luzapeneko osagarria	2.445
Arrisku bereziko osagarria	2.969
Mailako osagarria	6.622
Berariazko osagarria	12.106
Txandakako lanaldiaren osagarria	1.677
Azaroko guztizkoa	164.797

Oro har, udaleko langileen ordainsariak bat datoz plantilla organikoak haiek betetzen duten lanposturako aurreikusten dituen mailaren oinarrizko soldatarekin eta osagarrieekin.

2018an lanpostu bat betetzeko egin den deialdi bakarra berrikusi dugu. Aurreko urtean hasitakoa da prozedura, eta lanpostu-betetzea 2018an izan da. Oro har, zuzena da prozedura, nahiz eta lanpostu hori ez zegoen lehenagotik lan-eskaintza publiko batean jaso, Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen 113/1985 Foru Dekretuak ezartzen duen bezala.

NOMINAREN BARNE KONTROLA.

Eginiko berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, udalak sistema egokia daukala nominak egin, kontrolatu eta kontabilizatzeko, bai eta eginkizun-bereizketa aipatutako ere.

Gure gomendioak:

- Berrikusi dadila "Burlatako Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario eta administrazio-kontratadunentzako enplegu-baldintzei buruzko 2018-2020 urteetarako akordioa", eta itunak egokitu daitezela udalaren eskumenekoak diren gaitara.

- *Lan-eskaintza publikoetan aintzat hartzea tasa gehigarriak aldi baterako enplegua egonkortzeko eskaintzen dituen aukerak, lanpostuen aldibaterakotasuna ahalik eta gehien murrizteko.*

- *Lan-eskaintza publiko batean sartzeko ondorengo deialdietara joan diren lanpostuak.*

VI.5.4. UDALAREN ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU ARRUNTAK

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak 2,9 milioi eurokoak izan ziren 2018an. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 21 egiten dute, eta haien betetzea behin betiko kredituen ehuneko 86koa izan da.

2017ko ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek ehuneko bi egin zuten gora, xehakaturik jarraian azaltzen denez:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2018	Aitortutako betebeharrak, 2017	2018-2017 aldea (%)
Ibilgetu materialaren errentamenduak	275.035	279.618	-2
Ibilgetu materialaren konponketa, kontserbazioa eta mantentzea	505.662	563.228	-10
Inbentariatu ezin den materiala	42.394	60.755	-30
Hornidurak eta telekomunikazioak	846.803	703.015	20
Aseguru-primak eta tributuoak	69.531	78.830	-12
Protokoloko eta ordezkaritza-lanetako eginkizunak	55.045	93.624	-41
Beste enpresa batzuek egindako lanak	1.143.771	1.079.986	6
Dietak, lekualdaketa eta bestelako ordainsariak	1.009	10.350	-90
Guztira	2.939.250	2.869.406	2

Honako gastu-lagin hau aztertu dugu:

Aurrekontuko partidak/zerbitzuak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Otiak 3 urtera bitarteko haur-eskolaren kudeaketa	514.446
Hornidurak (argindarra eta gasa)	435.628
Elikadura-zerbitzua emateko kontratua	104.445
Gazteen zentroaren eraikinaren errentamendua	94.224
Berdeguneen eta iturrien mantentzea	62.780
Agentzia exekutiboaren diru-bilketako zerbitzua	56.539
Langileen aldagela	44.852
Podologia-zerbitzuaren kontratua	8.444

Egin dugun berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, fiskalizaturiko laginean gastuak justifikatuta, onetsita, kontu hartuta eta egokiro kontabilizatuta eta ordainduta daudela. Dena den, akats hauek ere aipatu behar ditugu:

- Honako gastu hauek fakturatu dira, adjudikazio-prozedura bateko aurretiazko lizitaziorik egon izanaren arrastorik gabe:

Aurrekontuko partidak	Aitortutako betebeharrak, 2018
Hornidurak (argindarra eta gasa)	435.628
Langileen aldagela	44.852
Erripagañako lorategien mantentzea	39.930
Guztira	520.410

- Diru-bilketak exekutiboko zerbitzua aurreko esleipen-hartzaileak ematen segitu du, nahiz eta agortuta egon aurreikusitako luzapen guztiak, eta zerbitzuak berriro lizitatu izan gabe. 2018ko gastu aitortua 56.539 eurokoa izan da, eta kontratua 2016ko abenduan mugaeguneratu zen.

KONTRATUEN LIZITAZIOA ETA ESLEIPENA

2018an egindako lizitazio hauek berrikusi ditugu, bai eta haien adjudikazioa eta urte horretako gastu-exekuzioa ere:

Kontratua	Prozedura	Esparru juridikoa	Lizitatuak kopurua	Lizitazioaren zenbatekoa*	Esleipenaren prezioa*	Beharpe-naren ehuneko
Podologia-zerbitzurako laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	6/2006 Foru Legea	1	9.400	9.400	0
Etkez etxeko laguntzarako programako elikadura-zerbitzua eta haur-eskolarena emateko laguntza teknikoa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik gora	6/2006 Foru Legea	2	165.409	132.816	19,7

* Zenbatekoak BEZik gabe:

Oro har, kontratuen lizitazioa eta haien esleipena, bai eta kontratuen exekuzioa ere, kontratuei buruzko legeriari jarraituz izapidetu dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaietaz aztertuta, justifikatuta, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude; halere, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Podologia-zerbitzuen kontratua dirulaguntza-deialdi bati lotua dago, zeinaren xedea baita atalase jakin batzuk baino gutxiagoko errentak dituzten pertsonen podologia-zerbitzua erabili ahal izatea. Enpresak udalari fakturatzen dio erabiltzaileak bere errentaren arabera duen dirulaguntzaren zenbatekoa, eta zerbitzuen prezioaren gainerakoa zuzenean erabiltzailearengandik jasotzen du.

- Elikadura-zerbitzuen kontratuan ez da betetzen Kontratuei buruzko Foru Legeak formuletan oinarrituriko irizpideetarako ezartzen duen ehuneko 50, ezen eskaintza ekonomikoak 25 puntuko puntuazioa baitauka gehienez, eta eskaintza teknikoak 75 puntuko, eta lehenbizikoaren puntuazioa da formuletan oinarriturik dagoen bakarra.

Gure gomendioak:

- *Gomendatzen dugu kasuko kontratazio-espeditenteak izapidetzea kontratuak amaituta dituzten zerbitzuen kasuan eta zenbatetsitako balioaren arabera kontratazio publikoari buruzko araudiak hala aurreikusten dueneko zerbitzuen kasuan.*

- *Podologia-zerbitzua kudeatzeko modua aztertzea, haren administrazio-izapidetzea sinpletzeko.*

- *Lizitazioan puntuazioaren ehuneko 50eko minimo bat ezartzea kontratu-xedeari loturiko eta formulen bidez balioesteko moduko esleipen-irizpideetarako.*

VI.5.5. INBERTSIOAK

Udalak 2018an eginiko inbertsioek 1,24 milioi euro egin zuten. Ekitaldian aitortutako gastuen guztizkoaren ehuneko bederatzigaiten dute. Kapituluako hasierako kredituak 3,5 milioi euro handitu dira, gastuen aurrekontuan egindako aldaketan bidez. Gastuen zenbatekoaren ehuneko 88 da hori. Halatan, behin betiko kredituak 6,2 milioi eurora iritsi dira, eta betetze-maila haien ehuneko 20a izan da. Betetze apal hori gehienbat "Elizgibela instalazioak" eta "San Juan 5 eraikinaren zaharberritzea" inbertsioei ekitean izandako atzerapenaren ondoriozkoa izan da.

Honako kontratu-lagin hau fiskalizatu dugu:

Kontzeptua	Prozedura	Esparrua juridikoa	Lizitatuzaile kopurua	Lizitazioko prezioa*	Esleipeneko prezioa*	Beherapena, %
Udal liburutegian klimatizazioa eta aireztapena instalazioa eta inguratzaile terminoa hobetzea	Publizitaterik gabe negoziatua	6/2006 Foru Legea	2	191.102	181.547	5
Haur-jolastoki estalirako hornidura	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheti.	6/2006 Foru Legea	5	82.650	82.650	0
Rubén Beloki aparkalekua	Publizitaterik gabe negoziatua	6/2006 Foru Legea	3	138.297	114.400	17,3
Etxebizitza-erosketa, UE S-24	Zuzeneko kontratazioa	6/1990 FL eta 280/1990 FD	-		444.699	-

* BEZik gabeko zenbatekoak

Oro har, kontratuen lizitazioa eta haien esleipena legeria betez egin dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaileak aztertuta, justifikatuta, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude. Halere, zenbait gorabehera detektatu dira berrikusitako espedienteen izapidetzean; ondoren, aipagarrienak azalduko ditugu:

- Inbertsio plan bat egotearen arrastorik ez da ageri.
- Haur-jokoetarako hornidura-kontratuaren esleipen-hartzaileak aurkezturiko behin betiko bermea baxuagoa izan da kontratuko pleguan ezarritakoa baino.
- UE S-24ko etxebizitzaren erosketaren eskriturretan ezartzen da erosleak ordaindu beharrekoa dela hiri-lurzoruen gehikuntzaren gaineko zerga, udalak kasu honetan, eta klausula hori ez da Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen araberakoa. Ondorioz, udalak zerga hori ez zien eskualdatzaileei likidatu, nahiz eta, gure fiskalizazioa dela-eta, kasuko likidazioak egin diren.

Gure gomendioak:

- *Inbertsio-plan bat onestea, plangintza egokia egin ahal izateko, bai eta haren jarraipena, kontrola eta ondorengo ebaluazioa ere.*
- *Kontratu-tako administrazio-klausulen pleguan ezarritako zenbatekoaren behin betiko bermea eskatzea.*

VI.5.6. TRANSFERENTZIA-GASTUAK

2018an, udalak 3,17 milioi euro egiten duten transferentziak eta dirulaguntzak egin zituen. Honako hauek izan ziren onuradunak:

	Arruntak		Kapitalekoak	
	Aitortutako betebeharrak	2018/2017 aldea (%)	Aitortutako betebeharrak	2018/2017 aldearen %,
Erakunde autonomoak	1.195.341	6	186.384	18
Mankomunitateak	336.840	9	0	-100
Partzuergoak	298.968	5	0	0
Enpresa pribatuak	78.554	Ez da aplikagarria	0	0
Toki entiateko ent. publikoak eta merkatari-tza-soz.			325.475	Ez da aplikatzen
Familiak	253.409	29		
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	46.701	38		
Beste transferentzia batzuk	304.540	3	148.126	0
Guztira	2.514.353	12	659.985	282

Transferentziek eta dirulaguntza arruntek 2,5 milioi euro egin zuten. 2018ko ekitaldian aitortutako betebeharren gutzitzearen ehuneko 18 dira. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 93 izan zen.

Aurreko urtearekin alderatuta, ehuneko 12ko gorakada izan zuten, eta nabarmentzekoa da enpresa pribatuentzako transferentzia, 78.554 eurokoa, epai judizial batek gainbalioaren zerga itzultza behartzearen ondoriozkoa.

Transferentziak eta kapitaleko dirulaguntzak 660.000 eurokoak izan ziren; horrek udalaren 2018ko betebeharrak aitortu guztien ehuneko 4,6 egin zuen.

2017an aitortuak baino ehuneko 282 gehiagokoak izan ziren, gehienbat Udalaren Hirigintza Sozietateari eginiko transferentzia batengatik eta birzatatze-proiektu bat zuzentzearen ondoriozko kalte-ordain batzuegatik.

Transferentzia eta dirulaguntza arrunten honako lagin hau fiskalizatu dugu:

Transferentzia arruntak	Aitortutako betebeharrak
Burlatako ikastetxeetako elikadura-prestazio ekonomikoen deialdia, 2017/2018 ikasturtea 2018 urtarrila - ekaina epea	203.195
Burlatako ikastetxeetako elikadura-prestazio ekonomikoen deialdia, 2018/2019 ikasturtea 2018ko iraila-abendua aldia	
Banakako ebaluazioaren araubideko dirulaguntzen deialdia, xedetzat dutenak 2019an podologia-zerbitzurako prestazio ekonomikoak ematea.	8.444 (*)
Nazioarteko lankidetzarako laguntzak	90.000
Gizarte larrialdiko laguntzak	133.709
Iruñerriko Mankomunitatearentzako transferentzia	338.858
"Hilarión Eslava" Partzuergoarentzako transferentzia	298.968
Epai judizial baten ondoriozko dirusarrera-itzulketa	78.554

(*) Zenbateko hori 2. kapituluari esleitu zaio ("podologia-zerbitzurako kontratua")

Oro har, emandako eta ordaindutako transferentzia eta dirulaguntza guztiak egokiro onetsita, fiskalizatuta eta kontabilizatuta daude, kasuko akordioen edo deialdien arabera. Halere, zenbait akats dektatu dira berrikusitako espediente batzuen izapideetan. Ondoren, aipagarrienak azalduko ditugu:

- Udalak ez dauka Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak edukitzera behartzen duen Dirulaguntza Plan Estrategikoa.

- Eskola-jantokirako laguntzak zuzenean ordaintzen zaizkie ikastetxeei edo elikadura-zerbitzua kudeatzen duten guraso-elkarteei, baina harreman hori ez dago jasota Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorreko 16. artikulua araberako ezein hitzarmenetan.

- Podologia-zerbitzurako prestazio ekonomikoak emateko deialdiaren oinarrien gaur egungo formulazioak oztopatu egiten du diru-sarreraren mailaren araberako lehenestea, haietan ezarritakoa. Gainera, laguntzaren ordaintzea kasuko laguntza-kontratuaren indarrez egiten du enpresa zerbitzu-emaileak, eta 2. gastu-kapituluan kontabilizatzen da.

- Nazioarteko lankidetzarako laguntzetako gastua honako hauek osatzen dute: senidetze-deialdi publiko batek, Medicus Mundirekiko hitzarmen batek, zeinetatik eratoritzen baita lau urteko proiektuetarako deialdi bat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekiko hiru urterako hitzarmen batek eta zuzenean ematekoak diren hiru laguntzak.

- Hitzarmenetan jasotako konpromisoak ez daude dirulaguntza izendun gisa aurrekontuko berarriazko partida batean jasota. Laguntzaren frogagirien aurkezpenaren eta berrikuspenaren jarraipen egokirik ez da kasu guztietan egiten.

- "Nazioarteko lankidetzarako senidetze"en deialdian, zenbait akats antzeman dira oinarrien edukian. Ildo horretan, ez aurreikusitako zenbatekoa ez eta funts-banaketarako irizpideak ere ez dira behar bezain argiak. Funtsak onuradunei alde aurretik helarazi zaizkie, nahiz eta hori ez dagoen oinarri arautzaileetan aurreikusita.

- "Nazioarteko lankidetzarako larrialdi-laguntzak" izenekoak deialdi publikorik gabe kudeatu dira, eta ez da zuzeneko ematearen bidez kotasuna justifikatzen duen ezein txostenen arrastorik ageri.

Gure gomendioak:

- *Dirulaguntzei buruzko plan estrategikoa onestea.*
- *Jantoki-zerbitzua kudeatzen duten entitate laguntzaileekiko hitzarmenak sinatzea.*
- *Podologia-zerbitzurako laguntzen deialdia birplanteatzea, halako moldez non haren oinarriak bete ahalgo baitira, kasuko kontratutik berezita.*
- *Zuzeneko emakidaren araubidearen bidez kudeatzen diren dirulaguntzen partidetan kasuko lankidetzak-hitzarmenak sinatzea, eta kasuko aurrekontu-partida izendunak gaitzea.*
- *Nazioarteko lankidetzarako laguntzak globalki berrikustea, haiek arautzeko deialdiak, oinarriak eta ordenantzak hobetuz eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren arabera aplikatu beharrekoa den prozedura aplikatuz.*
- *Dirulaguntza ezberdinen justifikazioaren jarraipena egitea.*
- *Aldez aurreko ordainketaren figura erabiltzea kasuko oinarri arautzaileetan hala aurreikusten denean bakarrik.*

VI.5.7. TRIBUTUAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2018an aitortutako eskubi-deek 7,2 milioi euro egin zuten. Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 38 egiten dute, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak		Betetakoa (%)	Aldearen %, 2018/2017
	2018	2017		
Zuzeneko zergak	4.102.631	4.012.771	101	2
Zeharkako zergak	1.618.899	813.498	130	99
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.441.397	1.158.080	143	24

Zergak

Zergak udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 30 egiten dute, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak	%, guztizkoaren gainean Diru-sarrerak	Aldea (%), 2018/2017
Zuzeneko zergak			
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	2.595.522	13,7	2
Zirkulazio zerga	952.955	5	2
Hiri-lurren balio-igoeraren gaineko zerga	209.552	1,1	40
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	344.516	1,8	-11
Zeharkako zergak			
Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga	1.618.899	8,5	99

Eskubide aitortuetatik zenbateko handienekoak hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioari dagozkio (2,6 milioi euro), eta 2017arekin alderatuta ehuneko biko igoera gertatu da. Hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren tasa 2017an 0,302 izatetik 2018an 0,307 izatera igo da.

Bereziki aipagarriak dira honako alderdi hauek:

- Hiri-lurren balio-igoeraren gaineko zergako eskubide aitortuek ehuneko 40 gora egin izana 2017koekin alderatuta. Gorakadaren zergatia izan da ezen Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 5eko 72/2017 epaia betetzera bideraturiko Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legearen aldaketak indarra hartu ondoren, 2018an udalak zerga horren likidazioak onesteari ekin ziola berriro, hori 2017an orokortasunez etenik egon ondoren harik eta legegintzaren bidetik argitu arte Konstituzio Auzitegiaren epaiak sorturiko ziurgabetasun-egoera.

- Ehuneko 99ko igoera izan du eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zeharkako zergak (aurreantzean, EIOZ), 2017arekin alderatuta 0.81 milioi haziz. Gutxienez ere zerga horren likidazioen ehuneko 85 Erripagañako garapenari loturiko hirigintza-jarduketena dira.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,307	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,40	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	18-25	8-25
Eraikinak, instalazioak eta obrak	5	2-5

2018an indardun zen balioespen-ponentzia irailaren 4ko 24/2014 Ebazpenaren bidez onetsi zuen Lurralde Aberastasuneko Zerbitzuak, eta 2014ko irailaren 12ko 179. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Diru-sarreraren hurrengo partiden lagin bat berrikusi dugu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak (%)	2018/2017 aldearen %
Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	209.552	83	40
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	1.618.899	77	99

Halaber, Tributuen Kontrolerako Planaren jarduketak eta emaitzak berrikusi dira, bai eta balorazio-ponentziaren egoera ere.

Nahiz eta 2014an Tributuen Kontrolerako Plan bat onetsi 2014 eta 2015eko ekitaldietarako, georago urteko plana ez da formalki onetsi. Alabaina, 2016an argitaratu ziren "2016tik 2020ra bitarteko ekitaldietarako Tributuen Kontrol eta Ikuskapenerako Plana tankeratzen duten irizpide orokorrak".

Irizpide horiek ezartzen dute ikuskapen-jarduna honako zerga hauen gain eginen dela: Hiri-lurren balio-igoeraren gaineko zerga (gainbalioa), eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga (EIOZ), jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik tasa eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga (azken hori kudeatze-bidean dago, eta horren ikuskapena berariazko plan baten esku utzita dago).

Egiaztatu dugu ezen, orokorrean, berrikusitako zergen likidazioa eta diru-bilketa ordenantzei eta kasuko arauari jarraituz egin direla. Horri dagokionez, honako hau adierazi behar dugu:

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatu egin da, Konstituzio Auzitegiaren 2017ko ekaineko epai baten ondorioz; horren bidez, izan ere, konstituzio-kontratatzat eta deuseztatzat jotzen dira Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen artikulua batzuk, eta horren ondorioz deusezak dira balio-gehikuntzarik ez dagoen transmisioetan egindako likidazioak.

Epai horrek eragin du lege-aldaketa bat egin dadila; hain zuzen ere, abenduaren 17ko 19/2017 Foru Legearen bidez gauzatu zena. Hartan denbora-eremua arautzen da eta likidazio-dataren arabera eta likidazio hori irmoa izatearen ala ez izatearen arabera aplikatzekoak diren arau desberdinak ezartzen dira, 2017ko bigarren seihilekoan egindako eragiketetarako ez ezik, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen direnetarako ere.

Konstituzio Auzitegiak zerga horri buruz denboran zehar eman dituen ebazpenen ondoriozko ziurgabetasun juridikoak ekarri zuen likidazioak 2017ko apiriletik aurrera orokortasunez geraraztea. Behin egoera abenduaren 27ko 19/2017 Foru Legearen bitartez argiturik, udalak 2018an berrekin zion likidazio-onespenari, nahiz eta ekitaldi horren amaieran oraindik likidatu gabe zeuden 2017ko eta 2018ko guztiak (2019an zehar izapidetzen segitu dute).

Horretarako, 2019ko irailean udalak enpresa pribatu batekin kontratatatu zuen ordura arte metaturiko gainbalio-likidazioak eguneratzeko laguntza.

- 2018an eginiko ikuskapen-jarduketek 70.114 euroko eskubide aitortu gordinak ekarri dizkiote udalari. Hona xehetasunak:

Kontzeptua	Eskubide aitortu gordinen zenbatekoa	Kobrantzak	Kobrantzak (%)
Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tributu kontrolletiko diru-sarrerak	15.111	11.268	75
EIOZaren tributu kontrolletiko diru-sarrerak	46.468	44.100	95
% 1,5 tasaren tributu kontrolletiko diru-sarrerak	8.535	3.673	43
Guztizko gordinak	70.114	59.041	84

Aurreko aitortenez gain, aurreko urteetako diru-sarreraren itzulketak egin dira, 28.458 euro egin dutenak, jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokionez, berrikuspen-jardunaren ondorioz.

Ikuskapen-jarduerak egiten dira udalak kontrataturiko kanpo-enpresa baten laguntzarekin. EIOZa ikuskatzeko prozeduraren berrikuspenean atzerapen handiak detektatu ditugu udalak enpresari informazioa igortzeari dagokionez.

Halaber antzeman da ezen Ordenantza Fiskal Orokorrak 41. artikuluan bi urteko epea ezartzen duela ikuskapen-prozedurak ebazteko, eta epe hori luzeagoa dela Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrek orokortasunez ezarritako 18 hilabeteak baino.

Gure gomendioak:

- *EIOZa kudeatu eta ikuskatzeko prozedura bat ezartzea, aintzat hartuko dituen ordenantzek ezarritako epeak. Epe horiek betiere behar dute koherente izan Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrekin.*

- *Beste alor batzuek kudeatzen dituzten tributu-kontrolleko jarduketan gaineko ikuskapena indartzea, balizko atzerapenak saihesteko.*

- *Urtero onestea Tributu Kontrolerako Plana.*

TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK.

Tasek, prezio publikoek eta beste diru-sarrera batzuek udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 7,6 egin zuten, eta honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	Zenbatekoa	%, guztizkoaren gainean Aitortutako eskubide garbiak	Aldaketa (%) 2018/2017
Tasak eta prezio publikoak	1.114.716	5,9	41
Bestelako diru-sarrerak	326.681	1,7	-11

Beste diru-sarrera batzuen hurrengo partiden lagin bat berrikusi dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Aldaketa (%) 2018/2017
Hirigintza-lizentziak	334.502	209
Hezkuntza-zerbitzuak	211.588	44
Berandutze-interesak eta gainkarguak	87.822	-31
Isunak	69.893	9

Hirigintza-lizentziengatikotasen aldaketaren zergatia da obra-lizentziak gehitu egin direla, EIOZari buruzko atalean aipatu dugun Erripagañako hirigintza-garapenaren ondorioz.

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, orokorrean, likidazioa eta diru-bilketa aplikatze-koa den araudiaren arabera egin direla; halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Isun kudeaketako prozedurak ez du inolako jakinbiderik ematen idaztean eginiko akatsen baten ondorioz suntsitzen diren txartelei buruz.

Gure gomendioak:

- *Isunen jarraipenerako prozedura hobetzea, haiek guztiak egokiro kontrola daitezen bermatzeko.*

VI.5.8. TRANSFERENTZIEN BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Transferentzia arruntengatik eta kapital-transferentziengatik diru-sarrerek 6,9 eta 0,5 milioi euro egin zuten hurrenez hurren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 39 dira.

Aurreko urtearekiko alderaketa-datuek honako alde hauek erakusten dituzte:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Aldaketa (%) 2018/2017
	2017	2018	
Transferentzia arruntak	6.506.680	6.936.782	7
Kapital-transferentziak	92.510	536.880	480

Kapital-transferentziak ehuneko 480 igo dira, urbanizatzeko-kuotengatik eta hirigintza-aprobetxamenduengatik eskubide gehiago onetsi izanaren ondorioz. Kontzeptu horiek ia ez zuten exekuziorik izan 2017an.

Transferentzien eta dirulaguntzen partiden honako lagin hau berrikusi dugu:

Aitorturiko eskubide garbiak, 2018	
Transferentzia arruntak	
Nafarroako Gobernua: oinarriko gizarte zerbitzuaren jarduerak	472.043
Nafarroako Gobernua: haur eskolak	174.019
Nafarroako Gobernua: hiri-mantentzerako programak	52.200
Kapital-transferentziak	
Nahitaez laga beharreko lurzorua	312.132
Urbanizazio-kuotak, N-12	177.958
Nafarroako Gobernua, Toki Inbertsioen Plana: liburutegiko ingurutzaila termikoa	17.596

Nafarroako Gobernuarengandiko dirulaguntzak berrikusteko egin dena izan da egiaztatzea ea aurrekontu-informazioa koherentea zen Foru Komunitateko Administrazioarenarekiko, bai eta horiei buruzko administrazio-egintzekiko ere.

Egindako lanetik ondorioztatzen dugu, oro har, aitortutako eskubideen likidazioa justifikatuta dagoela aplikatu beharreko araudiaren arabera.

VI.5.9. ONDARE BIDEZKO DIRU-SARRERAK

2018an, ondare bidezko diru-sarrerak 0,5 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko hiru egin zuten.

Honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Zenbatekoa	%, guztizkoaren gainean Kap. diru-sarrerak	Aldea (%), 2018/2017
Bankuetako kontu korronteen interesak	96	0	-98
SUMB: Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak	181.927	36	-
Hiri finen eta lokalen errentamendua	287.883	57	29
Lursailtako azalera-eskubideak	12.000	3	0
Emakidak eta kanonak	20.108	4	17

Aldaketarik nabarmenena da SUMB SLko mozkinetako partaidetzari dagokiona. 2017an ez zuen exekuziorik izan, kontabilitate-irizpide bat aldatu zelako.

Hiri-finen eta lokalen errentamenduaren partidaren lagin bat berrikusi dugu.

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, orokorrean, likidazioa eta diru-bilketa aplikatzea den araudiaren arabera egin direla; halere, honako akats hauek aipatu behar ditugu:

- Ondare-izaerako lurzati bat enpresa bati lagatzeko akordio bat ageri da, baina ez da kasuko BEZa likidatu.
- Gutxienez ere bost partikularri laga zaie garaje-postu baten erabilera, kontraprestazio bakartzat ezarririk udalaren gaineko erkidego-gastuen jasanarazpena.

Gure gomendioak:

- *Ondare-lurzatia lagatzeko akordioa berrikustea eta kasuko BEZa likidatzea.*
- *Partikularrei lagatako garajeen egoera erregularizatzea.*

VI.5.10. INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

Udalaren 2018ko diru-sarrerak, inbertsioen besterentzetik heldu direnak, 3,84 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 20 egiten dute. Batez ere lurren salmenta-operazioei dagozkie, haietan etxebizitzak egiteko, bai eta indibisoak desegitetik heldutako eskubideei ere.

Salmenta-eragiketen honako zerrenda hau hautatu da:

Lurzatia	Zertarakoa	Prozedura	Aitortutako eskubide garbiak*
Lurzatiak: B-7.3, Erripagañan	Babes ofizialeko etxebizitzaren errentamendua	Lehiaketa	1.254.400
Lurzatiak: B-7.4, Erripagañan	Babes ofizialeko etxebizitzaren salmenta	Lehiaketa	822.400
Lurzatiak: P-1, Erripagañan	Etxebizitza librea	Epai judiziala	1.762.427

* BEZik gabeko zenbatekoak

Indibisoa desegitearen ondoriozko lursail-salmentari dagokionez, jabeetako edozeinek eska dezake gauza erkidea zatitu dadin eta gauza hori esleia dakion gauza hori bere tasazio judizialaren araberako prezioagatik onartzen duen jabekideari.

AR-II (P-1 lurzattia) unitatearen indibisoaren esleipenaren kasuan, bi enpresa interesatu auzira joan ziren, lurzatiaren osotasunaren esleipena erreklamatzeko. Epai judizialak haietako baten alde erabaki zuen, eta kasuko zenbatekoa ezarri zuen.

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da espedienteak, oro har, toki esparruan aurreikusitako ondare-araubidearen arabera izapidetu direla. Halaber, eragiketa horien zenbatekoa baliabide atxiki gisa jaso da diruzaintza-gerakinaren egoera-orrian.

VI.5.11. HIRIGINTZA

Burlatako Udalak baliabide propioekin egiten ditu hirigintza-zereginak, Hirigintza Alorrari atxikiriko langile hauekin: arkitekto bat, arkitekto tekniko bat eta bi ofizial administrari. Gainera, merkataritza-sozietate bat dauka, SUMB SL, 2006an eratua Erripagañako hirigintza-kudeaketarako eta etxebizitza-sustapenerako.

2014an, Osoko Bilkurak erabaki zuen SUMB SLren eginkizunak gehitzea, hura udalaren ente instrumental gisa aitorturik.

Hirigintza-sozietate horri dagokionez, ehuneko 51ko partaidetza dauka Erripagaña Desarrollo Urbano SL sozietatean, zeinak 2018an ez baitu ezein jarduerarik izan.

2014ko maiatzean, Osoko Bilkurak hasierako onespina eman zion Burlatako Udal Plan Orokorrari, bai eta horren osagai den Ingurumen Eraginari buruzko Azterlanari. Azkenik, 186. NAOk, 2019ko irailaren 20koak, kasuko hirigintza-araudia argitaratu zuen, zeinak behin betiko onespina jaso baitu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren ekainaren 28ko 140E/2019 Foru Aginduaren bidez.

Udalak hirigintza-hitzarmenen artxibo bat dauka, baina kasuko erregistroa falta da.

VI.5.12. ERAKUNDE AUTONOMOAK

VI.5.12.1 KIROL PATRONATUKO AURREKONTU-LIKIDAZIOA

GASTUAK KAPITULU EKONOMIKOEN ARABERA

GASTUAK	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Bete-tzearen %	Ordain-duaren %
1. Langileak	1.001.100	9.299	1.010.399	1.010.399	991.610	100	98
2. Ondasun arruntak	829.036	83.155	912.191	912.191	820.135	100	90
3. Finantza-gastuak	0	0	0	0	0	-	-
4. Transferentzia arruntak	139.464	0	139.464	138.823	92.308	100	66
6. Inbertsioak	0	164.050	164.050	139.222	114.875	85	83
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	-	-
8. Aktibo finantzarioak	0	0	0	0	0	-	-
9. Pasibo finantzarioak	0	0	0	0	0	-	-
Guztira	1.969.600	256.504	2.226.104	2.200.635	2.018.928	99	92

DIRU-SARRERAK KAPITULU EKONOMIKOEN ARABERA

DIRU-SARRERAK	Hasierako aurreikus-pena	Aldak.	Behin betiko aurreikus-pena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Bete-takoa (%)	Kobrantza (%)
1. Zuzeneko zergak	0	0	0	0	0	-	-
2. Zeharkako zergak	0	0	0	0	0	-	-
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.444.500	34.454	1.478.954	1.493.277	1.469.878	101	98
4. Transferentzia arruntak	525.000	0	525.000	531.747	521.198	101	98
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprob.	100	0	100	145	145	145	100
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0	0	-	-
7. Kapital-transferentziak	0	164.050	164.050	138.874	88.908	85	64
8. Aktibo finantzarioak	0	58.000	58.000	0	0	0	-
9. Pasibo finantzarioak	0	0	0	0	0	-	-
Guztira	1.969.600	256.504	2.226.104	2.164.043	2.080.129	97	96

Gastuek 2,2 milioi egiten dute, eta haien exekuzioa ehuneko 99koa da. Haien izaerari dagokionez, gailendu egiten dira langileria-gastuaren eta ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuen kapituluak: aitorturiko gastuen guztizkoaren ehuneko 46 eta 41 egiten dute, hurrenez hurren.

Aitortutako diru-sarrerak 2,16 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko 97ko exekuzio-portzentajea izan dute. Tasek, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuek egiten dute aitorturiko eskubideen guztizkoaren ehuneko 69; gainerako ehuneko 31, transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak dira.

Kirol Patronatuaren gaineko fiskalizazioa, honako hauek berrikustea izan da:

a) Langileria-gastuak

Langileria-gastuak 1,01 milioi eurokoak izan ziren 2018an. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 100ekoa izan da, eta ehuneko 3,6 egin dute gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

2018ko abenduaren 31n, patronatuak honako lanpostu hauek zituen:

Saikapena	2018
Langile funtzionarioak	22
Lan-araubidea	11
Guztira	33

Honako hau zen lanpostuen egoera:

	2018
Plantillako postuak	33
Lanpostu beteak	10
Lanpostu hutsak	23
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	70
Betetako lanpostu hutsak	23
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)	100

2018ko abenduan lan-eskaintza publiko bat argitaratu zen, zeinean bakar-bakarrik sartu baitziren Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorren Legeko araudiak baimenduriko egonkortze-tasaren babesean eskainitako udal-lanpostuak. Halere, 2017ko abenduaren 31n beteta zeuden lanpostu hutsei buruzko txosten bat badago, zeinaren arabera guztira zortzi lanpostu baitaude Patronaturako, enplegu-egonkortzerako ezarritako betekizunak betetzen dituztenak.

Berrikusi egin ditugu 2018ko azaroko nominakoak diren langile guztien oinarrizko soldata eta osagarriak (salbu eta egun batez edo gehiagoz bajaran egon diren pertsonenak). Oro har, plantilla organikoak xedatzen duenaren arabera dira ordainsariak.

Gure gomendioak:

- *Lan-eskaintza publikoetan aintzat hartzea tasa gehigarriak aldi baterako enplegua egonkortzeko eskaintzen dituen aukerak, lanpostuen aldibaterakotasuna ahalik eta gehien murrizteko.*

- *Udaleko Kontu-hartzailatza Zerbitzuak nominaren kontu-hartzea egitea nomina-aldaketan hileroko kontrolaren bitartez, ordainduriko sarietan balizko akatsak egotea ekidite aldera.*

b) Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak

Kapituluko gastuak 912.191 eurokoak izan ziren, eta ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 41 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 100ekoa izan da, eta ehuneko 4,8 egin dute gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Berrikusi egin da "Beste enpresa batzuek eginiko lanak. Kirol-jardueren kudeaketa" izeneko partida, 378.903 euroko gastua duena.

Oro har, kontratuen lizitazioa eta haien esleipena, bai eta kontratuen exekuzioa ere, kontratuei buruzko legeriari jarraituz izapidetu dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzailatzak aztertuta, justifikatuta, zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daude; halere, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Kirol jarduerak kudeatzen dituen enpresaren fakturazioaren berrikuspenean ordu fakturatuen onespena ageri da. Nolanahi ere, ez da zerbitzuaren segimendu, kontrol eta ebaluaziorako txostenik eskatu, ez eta aurreko hilabeteko TC1 eta TC2 ere, zeinak fakturarekin batera aurkeztu beharko baitziren, pleguek ezartzen dutenez.

- Aurkitu da ezen, batzuetan, ordainketak egin izan direla Patronatuko Batzordeak ordainketa horiek formalki onetsi baino lehen. Halaber ageri da ordainketarako baimena duten pertsonen ez dutela mankomunatu sinatzen, zenbatekoa 30.000 euro baino gutxiagokoa denean.

Gure gomendioak:

- *Kasuko fakturak onetsi aurretik eskatu eta berrikustea pleguek exigitzen duten dokumentazioa.*

- *Ordainketa guztiak behar dira egin sinadura mankomunatuaren bidez eta Batzordearen onespena jaso ondoren.*

c) Transferentzia arruntetarako gastuak

UCD Burladés-i emandako dirulaguntza izenduna berrikusi da, 17.487 eurokoa. Horren justifikazioa eta berrikuspena arauaren arabera dira, nahiz eta kasuko hitzarmenak ez duen zehazten justifikazio hori aurkezteko epea.

Gomendatzen dugu UCD Burladés-ekiko hitzarmenean jasota utz daitezela dirulaguntza izendunaren justifikazioa aurkeztu eta berrikusteko epeak.

d) Inbertsioetako gastuak

Udal igerilekuetako aldageletarako altzariak erosteko lizitazioa berrikusi da, 22.425 eurokoa. Lizitazioak bete egiten du araudia, kasuko txosten juridikoa ez agertzearen salbuespenarekin.

Gomendatzen dugu lizitazio-espedito guztiak osatzea kontratazio-araudiak exigitzen duen dokumentazioarekin.

VI.5.12.2 KULTURA ETA JAIETARAKO PATRONATUKO AURREKONTU-LIKIDAZIOA

GASTUAK KAPITULU EKONOMIKOKA

GASTUAK	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Betetzearen %	Ordainketaren %
1. Langileak	209.874	0	209.874	188.988	187.103	90	99
2. Ondasun arruntak	512.772	61.626	574.398	567.438	529.417	99	93
3. Finantza-gastuak	0	0	0	0	0	-	-
4. Transferentzia arruntak	114.906	0	114.906	95.605	45.610	83	48
6. Inbertsioak	0	100.000	100.000	47.510	18.548	48	39
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	-	-
8. Aktibo finantzarioak	0	0	0	0	0	-	-
9. Pasibo finantzarioak	0	0	0	0	0	-	-
Guztira	837.552	161.626	999.178	899.541	780.678	90	87

DIRU-SARRERAK, KAPITULU EKONOMIKOKA

DIRU-SARRERAK	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Betetakoa (%)	Kobratua (%)
1. Zuzeneko zergak	0	0	0	0	0	-	-
2. Zeharkako zergak	0	0	0	0	0	-	-
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	109.200	0	109.200	155.616	154.836	143	99
4. Transferentzia arruntak	728.341	0	728.341	711.980	648.535	98	91
5. Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	11	0	11	0	0	0	-
6. Inbertsio errealeen besterentzea	0	0	0	0	0	-	-
7. Kapital-transferentziak	0	100.000	100.000	47.510	0	48	0
8. Aktibo finantzarioak	0	61.626	61.626	0	0	0	-
9. Pasibo finantzarioak	0	0	0	0	0	-	-
Guztira	837.552	161.626	999.178	915.106	803.371	92	88

Gastuek 899.541 euro egin dute, eta haien exekuzioa ehuneko 90ekoa da. Haien izaerari dagokionez, gailendu egiten dira ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuen eta langileria-gastuen kapituluak:

aitorturiko gastuen guztizkoaren ehuneko 63 eta 21 egiten dute, hurrenez hurren. Gainerako ehuneko 16a transferentzia arruntak eta inbertsioak dira.

Aitortutako diru-sarrerak 915.106 eurokoak izan dira, eta ehuneko 92ko exekuzio-portzentajea izan dute. Nabarmentzekoak dira transferentzia arruntengatiko diru-sarrerak, aitorturiko eskubide guztien ehuneko 78 egiten baitute. Gainerako ehuneko 22a tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk eta kapital-transferentziak dira.

Kultura eta Jaietarako Patronatuaren gaineko fiskalizazioa, honako arlo hauek berrikustea izan da:

a) Langileria-gastuak

Kultura eta Jaietarako Patronatuak bost langile dauzka: kudeatzaile bat, bi administrari eta bi atezain. Horien guztien nominak berrikusi dira eta egiaztatu da ezen, oro har, ordainsariek bete egiten dituztela plantilla organikoan ezarritakoak, nahiz eta honako akats hauek aurkitu diren:

- Langileriaren nominak kanpo-aholkulari batek egiten ditu, eta ez dute onespenerik jasotzen ez lehendakariarengandik ez eta Patronatuko Batzordearengandik ere. Lehendakariak eta kudeatzaileak ordainketa-sorta sinatu besterik ez dute egiten.

- Kasu batean aurkitu da ordainsari justifikatugabe batzuk kobratu direla. Dena den, txosten honen datarako hasita zegoen zor ziren kopuruaren itzulketarako espedientea.

Gure gomendioak:

- *Organo eskudunak gastu-onespena eman dezala haiek ordaindu baino lehen.*
- *Udaleko Kontu-hartzailera Zerbitzuak nominaren kontu-hartzea egitea nomina-aldaketan hileroko kontrolaren bitartez.*

b) Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak

Honako partida hauen lagin bat berrikusi dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Kultur ekintzen eta musika-jardueren programazioa	183.320
Jaietako programazioa	149.000
Kultur ekintzen kudeaketa	65.378
Ikastaro soziokulturalak	29.489

Egin dugun berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, fiskalizaturiko laginean gastuak justifikatuta eta egokiro kontabilizatuta daudela. Dena den, akats hauek ere aipatu behar ditugu:

- Kultur ekintzen programaziorako gastua fakturaren truke exekutatu da. Gastu hori azterturik, egiaztatzen dugu ezen sei fakturari dagokien 35.633 euroko zenbatekoa zuzeneko kontratazioz bideratu dela, aplikatzekoa den araudiak baimenduriko atalasea gainditurik. Fakturazioaren lagin bat berrikusiz egiaztatu dugu ezen, batzuetan, ez dela kontraturik ageri, ez eta arduradunaren oniritziak ere.

- Jaien programaziorako gastua fakturaren truke egin da. Gastu hori azterturik, egiaztatzen dugu ezen lau fakturari dagokien 52.213 euroko zenbatekoa zuzeneko kontratazioz bideratu dela, aplikatzekoa den araudiak baimenduriko atalasea gainditurik.

- Aretoko teknikarien zerbitzuetarako kontratua, 2016an esleitua, 2017ko abenduan mugaeguneratu zen, eta gaur den egunean ez da lizitazio berririk egin. 2018an aitorturiko gastua, zeina hilabeteetan faktura batekoa baita, 65.166 eurokoa izan da.

- 2018an oraindik ere irakasten ari diren bi ikasturte 2016-2017 ikasturterako kontratatu ziren, lutzapen-aukerarik gabe; hortaz, mugaeguneratuta daude 2017ko maiatzaz geroztik. Irakatsitako gainetarako ikastaroei dagokienez, egiaztatu da gehienak lizitatu egin beharko zirela, eta fakturaren truke

exekutatu dira. Ekitaldian kasuko lizitaziorik gabe edo lizitazioa mugaeguneratuta egonik aitorturiko zenbatekoa 26.603 eurokoa da.

Gure gomendioak:

- *Gomendatzen dugu kasuko kontratazio-espeditenteak izapidetzea kontratuak amaituta dituzten zerbitzuen kasuan eta zenbatetsitako balioaren arabera kontratazio publikoari buruzko araudiak hala aurreikusten dueneko zerbitzuen kasuan.*
- *Organo eskudunak gastuetarako onespena ematea arduradun den pertsonak gastu horiek egiaz-tatu eta baliozkotu ondoren.*

c) Transferentzia arruntetarako gastuak

Musika-bandarentzako dirulaguntza izenduna berrikusi dugu, eta ikusten da justifikazioak ez duela betetzen Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak ezarritako gutxieneko edukia, eta epez kanpo aurkeztu dela.

Bandarekiko hitzarmena berrikusi, eguneratu eta osatzea, araudia bete dezan.

Patronatu honek bost pertsonako egitura dauka, eta 0,9 milioi euroko urteko aurrekontua. Patronatuaren administrazio-egiturak dakartzan antolaketa-kostuek kasu batzuetan udalarenetik bikoiztasuna ekartzen dute. Udalak ez du barne-kontrolik egiten Patronatuaren gainean, eta horren ondorioz, kudeaketak zenbait akats dauzka gastu-berrikuspen eta -onespeneko prozeduretan eta kontrataziokotan, nagusiki.

Gomendatzen dugu hausnar dadila kultura eta jaietarako erakunde autonomoa desegiteaz eta zerbitzua udalaren egituran integratzeaz. Horrek kudeaketa eraginkorrago eta efizienteagoa ahalbidetuko du, bai eta sektore publiko arrazionalago eta sinpleagoa.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Edurne Martinikorena Matxain auditoreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2020ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Burlatako Udaleko alkate Ana María Góngora Urzaiz andreak eskatzen du aintzat har daitezela 2018ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari eginiko alegazio hauek:

Behin-behineko txostenari buruzko alegazioak honako hauek dira:

VI.5.3 Udaleko langile-gastuak

Behin-behineko txostenean adierazten duzueenez, hiru postu dira betetzen ez dutenak egiturazko postuak barne hartzen dituen aldi baterako enpleguaren egonkortzeari buruzko 6/2018 Foru Legean ezarritakoa; diozueenez, honako hauek: 6.18 Gizarte-langilea; 6.23 Famili langilea; eta 5.11 Lorezaintzako ofiziala.

Hizpide dituzuen hiru postuak berrikusi ondoren, gure iritzia da haietako batek bakarrik, 6.18ak, ez duela betetzen 6/2018 Foru Legeak ezarritakoa. Beste biek, baina, beteketo lituzkete, bai, lan-eskaintza publikoan sartuak izateaz aipatu arauak exigitzen dituen betekizunak.

5.11 postua lorezaintzako ofizial baten lanpostua da, plantillan sortua barne-sustapenerako baino ez (postua betetzeko prozeduraz plantillak "R" hizkia agertzen du, gaztelaniazko "restringida" adierazteko); hortaz, zilegi da deialdian sartzea 6/2018 Legea beterik, baina barne-sustapenerako postu-betetzeari buruzko atalean, murriztapenik gabe, azaroaren 26ko 938/2018 alkatetza-ebazpenak adierazi zuen bezala (240. NAO, 2018ko abenduaren 14koa). Ebazpen hori bidali egin zitzaizuen. Postu horren arazoa da 2018ko plantillan ez zela betetze murriztuaren berri ematen, oker baten ondorioz, zeina 2019ko plantilla argitaratu zenean zuzendu baitzen (112. NAO, 2019ko ekainaren 11koa).

6.23 zenbakidun postuari dagokionez, D mailako famili langile baten postua da, eta 2018ko lan eskaintza publikoan sartuta dago betekizun berberak dituzten beste bi postuarekin batera, 6.21 eta 6.22 zenbakidunak. Azken bi horiei buruz zuen txostenak ez du ezer esaten. Hiru postuak berritik sortuak dira; halere, D mailako hiru postu dira, plantillan dauden famili langilearen C mailako hiru postu ordezteko sortuak. Izan ere, famili langilearen postu batek D maila izan behar duela jotzen da, eta ez C maila. Horrela, C mailako postuak iraungi egingen dira D mailakoak betetzen direnean, eta postu guztiek lan bera dute xede; hortaz, maila-aldaketa bat baizik ez da.

VI.5.5. Inbertsioak:

Haur-jokoetarako hornidura-kontratuaren esleipen-hartzaileak jarritako behin betiko bermea kontratuko pleguan ezarritakoa baino baxuagoa izateari dagokionez, alkatetzaren ebazpen baten bidez (RESALCAL/2020/277, 2020ko martxoaren 18koa) eskatu egin da jarri gabeko fidantza-partea.

VI.5.9. Ondare bidezko diru-sarrerak.

Espedientea aztertu ondoren, Udalak egiaztatu du aipaturiko bost garaje-tokiak horien jabe zen Vinsak besterendu zituela 2002an, eta erkidegoaren gastuen helbideratzea egiteke dagoela. Detektaturiko gorabehera hori garaje-erkidegoa kudeatzen duen finka-administratzaileari jakinarazi zaio, egin beharreko aldaketak egin ditzan jabeen gastu-helbideratzean.

Burlatan, 2020ko martxoaren 23an

Burlatako Udaleko alkatea Ana María Góngora Urzaiz

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

Burlatako Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txostenean erantsi ditugu, eta, uste baitugu ez diotela txostenaren muinari eragiten, behin-behineko txostena behin betekotzat jo dugu.

Iruñean, 2020ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga